BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, DONOSTIA ZINEMALDIKO GALETARAKO ESZENOGRAFIAREN ERAIKUNTZA, MUNTAKETA ETA DESMUNTAKETA KONTRATATZEKOA

Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

I.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea Kursaaleko auditoriumean egingo diren Inaugurazio, Klausura eta Donostia Sariak emateko galetarako eszenografia eraiki, muntatu, desmuntatu, garraiatu eta mantentzea da.

Gauzatu beharreko zereginak ondoko hauek dira:

a) Eszenografia eraikitzea Kursaaleko auditoriumean egingo diren Inaugurazio, Klausura eta Donostia Sarien galetarako, plegu honetan deskribatutako diseinu eta materialen arabera.

b) Material guztiak Kursaalen garraiatu eta muntatzea, plegu honetan adierazten den egutegiaren arabera. Zerbitzuak material hauen mantenua, konponketa eta/edo ordezkapena barne hartzen ditu, Zinemaldiak iraun bitartean.

c) Kontratu honen xede diren material guztiak desmuntatu eta Kursaala hustea.

II.- ERAIKI BEHARREKO ESZENOGRAFIA

Kontratuak biltzen dituen zerbitzuak eman ahal izateko, interesa duten enpresek Donostia Zinemaldiari (compras@sansebastianfestival.com) eskatu ahal izango diote eraikuntza-plano zein eszenografiako materialen memoriari buruzko informazioa, eta baita Kursaal auditoriumeko eszenatokiaren eta bertako sarbideen planoak ere.

Materialen kalitate edo neurriei buruzko edozein aldaketa zehaztu egin beharko da. Laguntza lanak, eta karga eta deskarga lanak egingo dituzten laguntza langileen beharrak ere adierazi beharko dira, Zinemaldiak bere gain hartuko dituenak.

Ildo horretan, Zinemaldiak egur-hondakinentzat bakarrik den edukiontzi baten gastuak hartuko ditu bere gain. Bestelako hondakin bizigabeak esleipendunaren kontura eta bere ardurapean izango dira.

Eszenografiaren muntaketa eta desmuntaketa Kursaaleko arauak betez egingo da.

Zinemaldiak materialak berrerabili ahal izateko moduan desmuntatu beharko da.

III.- GIZA BITARTEKOAK

Enpresa lizitatzaileek kontratu hau gauzatzeko atxikiko dituzten giza bitartekoak adierazi beharko dituzte.

Era berean, Zerbitzu Arduradun bat izendatuko da, Ekoizpen sailaren argibidepean, besteak beste, funtzio hauek izango dituena:

- Zinemaldiaren solaskide izatea.
- Muntaketaren aurreko bileretara joatea.
- Zerbitzuaren funtzionamendu eta jardunbide zuzenaz arduratzea, eta baita zerbitzuari esleitutako langileez ere.
- Galetan parte hartzen duten beste gremioekin elkarlanean aritzea.

IV.- AURREIKUSITAKO EGUTEGIA

Donostia Zinemaldiaren 72. Ediziorako aurreikusitako egutegia ondorengoa da:

- **Irailaren 16a**: Deskarga eta muntaiaren hasiera.

- **Irailaren 17a**: Muntaiaren jarraipena.

- **Irailaren 18tik 20ra**: Doikuntzak eta moldaketak entseguetan.
- **Irailaren 20a**: Inaugurazio Gala.
- **Irailaren 21 eta 26a**: Donostia Sariaren Gala(k).
- **Irailaren 28a**: Klausura Gala. Desmuntaketa eta materialak kentzea, Klausurako filma amaitu orduko.

Egutegi hau erreferentziatzat hartzeko baliagarria da soilik. Behin betiko lan programak Zinemaldiko Ekoizpen sailak finkatuko ditu.